

Liburutegietan zentsura dagoela salatu dute Nafarroako liburuzainek

Asnabi Nafarroako Liburuzainen Elkarteak liburuzainen eskumenak urratu izana salatu du Iruñeko elkarretaratzean

N. ELOLA. IRUÑEA. Asnabi Nafarroako Liburuzainen Elkarteak elkarretaratzea egin zuen atzo, Iruñeko udaletxe aurrean, liburutegi publikoen askatasuna aldarrikatzeko. Horren bitartez, Iruñeko eta Barañaingo udalek, besteak beste, BERRIA eta Gara egunkariak ez erosteko emandako agindua zentsuratzailea dela salatu zuten. Asun Maestro Asnabiko presidentearen aburuz, Iruñeko eta Barañaingo udalen erabakiak liburutegi publikoen izpiritua urratu egiten du. Gainera, erabaki horren bitartez liburuzainek ez dute askatasunez lan egiteko aukerarik, adierazi zuen.

Unescok 1995. urtean apirilaren 23a Liburuaren Nazioarteko Egun gisa izendatu zuen. Baina Asnabiko kideek atzo adierazi zuten ospatzeko ezer gutxi zutela. Hala, Iruñeko eta Barañaingo liburutegi publikoetako egoera aldatzeko, Herri liburutegiak denontzat, denok den-denak garenean izenburua duen manifestua kaleratu dute. Manifestu hori ehunka lagunek sinatu dute, baina elkarteko kideek azaldu dutenez, nahiago lukete idazki hori idazteko momentua heldu izan ez balitz.

Izan ere, liburuzainek diotenez, 2009ko otsaila aldean, Barañaingo liburutegi publikoan bertzeen artean ziren bi egunkari desagertu ziren, eta ez ospa egin zutelako. Jakinarazi dutenez, Barañaingo zinegotziak BERRIA eta Gara gustuko ez zituenenez, bi egunkari horiek erosteari uzteko agindua eman zuen. Hautetsiak erabaki horren atzean arrazoi ekonomikoak zeudela esan zuen, baina hori guztia gezurra da liburuzainen iduriko. Zinegotziaren hautuan ekonomiak ez du izan zerikusirik; zentsura da guztiaren bultzatzaile.

Barañainen gertatutakoa gertatu eta zenbait astera, alarma berriro ere piztu zela gogorarazi dute Asnabiko kideek. Izan ere, Iruñeko Udalak aste batzuk lehenago Barañaingo Udalak hartutako erabaki berbera hartu zuen Iruñeko zortzi liburutegi publiko-etarako. Alarmen zeregina arreta piztea da, eta gaixotasuna gero eta gehiago zabal-tzea nahi ez badugu, kasu egin behar diegu, dio Asnabiren manifestuak. Horretarako, liburutegiak zer diren hausnartzeko gonbita egin diete liburuzainek herritarrei.

Liburutegi publikoak

Asnabiren aburuz, liburutegiak ez dute baztertzeko. Liburutegi publikoak ehun oso berezi batez eginak daudela diote, saldu edo erosi ezin daitekeen ehun batez eginak, alegia. Ehun hori ez dela ideologikoa azaldu du Maestrok, liburutegi batean mota guztietako informazioa aurki daitekeelako. Liburutegietan denetarik aurki daiteke: fisika kuantikoa lantzen duen liburu bat eta Mozarten obrek osatzen duten disko bat, esaterako.

Gainera, Asnabik nabarmendu du liburutegietan zein material erosi behar den erabakitzea liburuzainen ardura dela. Barañaingo eta Iruñeko kultura zinegotziek eskua sartu dute geure zereginetan, salatu du. Arlo horretan oso kezkatuta daude Asnabiko kideak. Gaur zein egunkari erosi behar dugun esaten digute, eta bihar gainontzeko materialak ere beraiek hautatu nahiko dituzte.

Iruñeko eta Barañaingo udal liburutegiek duten izaera publikoa gogorarazi dute Asnabikoek manifestuan. Liburutegiak iritzi eta informazio askatasuna nagusi diren guneak direla gogorarazi dute.